

## Euskaldunen istorioak



Jorge Oteiza eta Sabino Aranaren buruak (1979). Argazkia: Oteiza Museoa



Sabin Etxea, euskal abertzetasunaren sortzailearen jaiotetxea.

**S**ABINO Arana Goiriren jaiotza 150 urte dela eta eki men desberdinak burutu ohi dira urtean barrena. EITBn, dokumental berria eta Sabin ize-neko dokudrama. Euskaltzaindiak Sabino Arana Fundazioarekin bate- ra Jardunaldia, Hermes aldizkariak 50 ale berezia eta oraingoan Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaikoa era-kundeak antolatu berri du erakus- eta zabala, Askatasun eguzkia lelopean. Jaiotzaren ehungarren urtean, Bizkaiko Aldundi probin-tzialeko aldizkariak, Vizcaya izenekoak, fran- kismo garaian ere gogoratu zuen, hainbat irudi tarteko, J.M. Areilza- ren ikuspegien bidez. Bere alde- tik, Sabindar Ba-tzak 1965ean lan osoak argitaratu zituen Buenos Airesen. Oraingoan, erakusketaren atal batean, zein edozein etxetik, Sabino Aranaren lan osoak eskura- garri ditugu. ([www.sagl50.eu](http://www.sagl50.eu)). Era- kusketa antolatzeko unean, pertso- naiaren osotasunaren baitan bi ezaugarri hartu ditugu ardatz: Euskaltasuna eta ekintzabide poli- tikoak.

1.-Lehen data, 1865koa dugu, Sabi- no Aranaren jaioturtea. 1864ean, Bizkaiko Bazaar Nagusietan aldarri- kapen politiko berritzaleak agiri ziren jadanik. Buruzagien artean aita, Santiago Arana, Abandoko eli- zatearen ordezkari. Bestalde, hiru ordezkariak euskarazko katedra indarrean jartza esku zuten, hizkuntza nazionalitatearen oina- rri nagusia zelako. (*Allí donde con- cluye la lengua de los pueblos con- cluye su nacionalidad*). Bazaar horie- tan Portugaleteko ordezkaria zen M. Loredok *Jaungoikoa eta Foruak* goi- burua aldarrikatu zuen. Foruzale- tasuna, aginte politikoa zen heinean, bereziki, liberalen ildokoa zena, erli- jio katolikoaren sinesmenei erabat uztartu zion, transzendentzia erantsi zion eta bitan banatu zen foruzaletasunaren aldarria, libera- la eta katolikoa. Aldi berean, Bilboal- dean iraultza industriala errotzen ari zen eta gizartearen erabateko aldaketa gertatu zen.

Sabino Arana, Abandon gaztelan- iaz eta Baionan, erbesteraturik, frantsesek eskolatu zen. Euskal aka- demia aldarrikatu eta 21 urtez,

Sabino Aranaren bizitza hainbat ikuspuntutik jasotzen duen erakusketa dago ikusgai Bilboko María Diaz de Haro kalean dagoen Ondare aretoan, Bizkaikoa erakundeak antolatuta, euskal abertzetasunaren sortzailea jaio zeneko 150. urteurrena dela eta

*Joseba Agirreazkuenagaren erreportaia*


# Askatasun eguzkia: Sabino Arana, erakusteko moduko bizitza

euskara euskaldunen nazioaren adierazgarria zela idatzi zuen. Gizarte moderno berrian, euskal hiztunek lekurik izango ote zuten Euskal Herrian? Horra oraindik argitu ez den erronka.

2.-Bigarren data, 1898 dugu. Sabi- no Arana Bilboko barrutian Bizkaiko Aldundirako hautatua izan zen eta bertan 1903 arte, ordezkari publikoa bihurtu zen. Garaiko giro horretan politikagintzaren arloan, hiru pertsona elkarren arteko jokoan agiri zaizkigu: Chavarri, Perezagaña eta Arana.

**ZER ERAKUSTEN DA?** 18 jatorrizko margo, garaian garaiko goi mailako margolari ezagunen ikuspegiak, euskal abertzetasunaren ildokoak batzuk, adibidez A. Guiard eta A. Guinea. Bestalde garaikide izan ziren sei pertsonairen busto eder: Aureliano del Valle, A. Guinea, S. Arana, A. Campion, R. de la Sota, M. Unamuno. Eta sarreran bertan Otei- zak Sabino Arana aitzkaitzat hartu- rik, egin zituen 8 busto, zein baino zein Oteizaren erretiratu zuzenak.

Sabino Aranak, publizitate eta pro- pagandarako sena berezia izan zuen



Guineak margoturikoa Foru Aldundiko Jauregian bidriera egiteko. Argazkia: Bizkaiko Foru Aldundia



S. Aranaren burua, 1919an L. Fernandez de Vianak egina. Argazkia: Arabako Arte Ederren Museoa

eta berak sortu zituen aldzikari eta egunkari guztiak agiri dira. Aldizkarien artean nabarmentzekoa da *La lucha de clases* 1898an maiatzaren lean argitaratu zuen azala.

Bere bizitzan barrena argitaratu zituen liburu eta liburuxka guztiak erakusten dira. Adibidez, 1896. urteko apirilak 12an Ereñon Espa- niako parlamenturako hauteskun- de egunean labankadaz J. A. Arriza- bala hil zuten eta bere omenez eta

gorazarrez Sabino Aranak idatzi zuen oroimena agiri da.

Setazko zapi ikusgarriak daude erakusgarri, ikurrinaren txoko berezian, ikurrinaren lehen zirriborroaren ondoan eta Sabino Aranaren bulegoko maia eta ezkondu ostean senar emazteen eguneko tresneria.

**EDUKIAK ETA ATAL NAGUSIAK** Hiru atal nagusi: 1.-Aurrekari politikoak

eta garaiko giro soziala eta ekono- mikoa

-Espainiako erresuman bi konsti- tuzio indarrean jarri ziren, 1808 eta 1812an. Bizkaiko Bazaar Nagusietako ordezkariek erabaki bera adiera- zi zuten: Bizkaiko konstituzioa bere horretan irau behar zuela. Eta Sabino Aranak *Egutegi bizkaitarrean* J. J. M. Yandiolaren adieraz- pena (1808) euskarara itzuli zuen, Bizkaiaaren aldeko konstituzioaren oinarriak aldarrikatuz. Burujabe- tzaren aldeko kultura politikoa abian zegoen. Abandon eta Bilbon euskaltasun politikoa agiri zen (Astarloa, Bizketa Mogel, Ulibarri) eta horren jabe egin zen. Bazaar Nagusien bidezko gobernuak 1877ra arte irau zuen eta euskal politika- gintzan Bazaar Nagusien ezabatzea, gertakizun epifaniako gertatu zen. Agintea galtzeak edonori kalte era- gitzen dio. Pi i Margall errepublika- noak *Las nacionalidades liburan* 1877an idatzi zuena gogoratzen dugu: "Espainiak onartuko ote du euskaldunen independentziari?"

-D'Abbadieren bidezko koplarien guduak eta euskal jaiak gogoratzen dira. Bereziki, *Euskal Erria* aldizka-

## Euskaldunen istorioak



S. Aranaren mahaia; atzean A. Guinearen 'Jaun Zuria'; eskubian A. Campion eta Barroeta eta Losadaren margoak.



S. Aranaren buruak, J. Oteizak egina. Argazkia: SAF




Erakusketaren iragarkia eta Arana anaien argitaletxearena (1896).

ria, euskaroak eta zazpiak bateko armarria, 1892an inprimatua.

Bilboaldeko gizartea erabat berri- tu zen. Atal honetan burdin meate- gietako paisaia agiri zaigu margotu- rik 1887ko akuarela handi eta eder batean eta pertsonai bi: Chavarri, meategietako jabeduna, ingenieroa eta enpresa industrial berritzaleen sortzailea. Politikagintzaren arloan Bizkaiko Aldundian eta Bilboko Udaletxean erabateko gehiengoa zuen, liberal ildokoa eta erregeza- lea. Bestalde, Perezagua, langileen buruzagia eta Tomas Meaberen margoa, A. Arruek egina. T. Meabek eta Sabino Aranak eztabaida inter- resgarriak izan zituzten.

2.-Aranatarren etxeoak ageri dira. Sabino Aranaren ibilbidea Bartzelonan, Renaixensaren garaian eta katalanismo politikoaren hasieran. Ikasle zela euskararen inguruko kezkak zituen, bereziki euskara goi mailako kultura hizkuntza izan zedin. Euskararen katedran porrot egin ondoren, Bilbora iritsi zenean ekintza politikoan sartu zen. Euskaldun Batzokia antolatu eta isilpeko alderdi bat: *Bizkaia Batzarra*. Viz- caytik Bizkaira R. M. Azkueren zar- zuela goraipatu egin zuen. Elkarren arteko adiskidetasuna lehenik eta ondoren euskararen normalizazio prozesuan elkarren arteko lehia. Bizkaiko independe-tzia aldarrikatu zuen (1892) eta Nafarroaren aldeko. *Bizkaitarra* agerkarian espainiarak arrotzak dira, españo-

lismoa salatu eta euskal gizartean odola eta jaioterriaren araberako segregazioak amesten ditu. Odolak egiten du abertzalea idatzi zuen. Hasierako garaiko asmakizunak dira, piztu eta esna-tzeko. Euskaldun Batzokiaren aurkako denun- tzia zela eta 1895ean espelxean sar- tu zuten. Aranzadik idatzi zuen arti- kulua bere gain har-tzen du. Epai- tegian D. Irujok bere defentsan euskal abertzalesunaren teoria ondu zuen. Guztira, 8 denuntzia, 7 epaketa, 3 izun jaso zituen. Espelxeadiaaren ostean, argitaletxea sortu zuen, goiburu batez: Pizkun- dea, industritzta berriaren pizkundearen garaian, euskarak, euskal nortasunaren piztundea behar zuen izan. Azkuek bere alde- tikit *Euskaltzale* aldizkaria euskaraz sortu zuen, Aranak *Baserritarra*, gaztelaniaz eta euskaraz. Euskal- riako foruzaleak zirenak, *Euskalduna* agerkaria ere, liberal erroko euskal abertzalesunaren alde. 1898an, azkenik, guztiak batera, euskaltasun politikoak hauteskun- deetara jauzia egin zuen katoliko zein liberal ildokoa izan. Sabino Arana izango zen ordezkaria, handiki eta kaziike berrien aurka, hau da, Chavarriaren alderdikoak gailen- tzeke. Arazo soziala begi-bistakoa zen. Aranak azpiegiturak ez zue- nez, R. M. Azkuerei Euskaldun Biltokihauteskundeetarako erabiltzeko baimena eskatzen dio eta Azkuek baiezkoa. Eta horrela, Bilbo barru-



Zazpiak Bat. 1892an argitaratu.

tiko hautesleriaren %9ak Aranaren kandidaturaren alde sinatu zuen.

**1898KO HAUTESKUNDEAK** 1898ko hauteskundeen berri zehatza era- kusten dugu, herriz herri botoen kontaketa. Jaso zituen 4.545 boteo- tikit erdia baino gehiago Bilbon har- tu zituen, 2.524, boto-emaileen %32. Urdulizeko herrian %93 eta Eran- dion %57. Diputaziiora heldu eta berehalera helburu bi izan zituen: Kontu guztiak argi eta garbi eta bes- talde handikien mesederako, hau da

Chavarriaren ingurukoentzat mese- derik ez. Horrez gain, lau herrialde- deetako Diputazioen arteko kontseilua sor-tzea proposatu zuen, euskal agintari-tzaren islatzat, ohikoa zena, hitzartu, baina ez zioten onartu. Era- kusketan, hartu zituen ekimen guz- tien berri agira da.

1899an udal hauteskundeetara aurkezu ziren eta Bilbon 5 zinego- tzi lortu zituzten eta Bermeon bes- te bost. Mundakan lehen alkate abertzalea, Salvador Etxeita. Arteagan eta beste herri batzuetan ere abertzaleen inguruko zinegotziak aukeratu ziren. Bi urteren buruan Bermeon gehiengoa lortu zuten eta amarratzaren (kazikeak izendatzeko metafora ederra) itxarrak gaindituz. Proiektu sozial batzuk atxikiturik agiria euskal nortasunaren defentsa. 1901ean, Unamunok Bilbon adiera- zi zuen euskarak bizitza moderno- rako ez zuela balio. Eta hala zen, bai- na Aranaren erantzuna: egokitu dezagun eta Hendaian, euskaltza- leen bileran horixe eskatu zuen. Azkuek ere Unamunori idatzi zion, berak gaztelera egokitzen zuen bitartean, beste batzuk euskara.

Garai honetan abertzalesunarena alderdi bat baino ez zen. Batzokiak egin zituzten, Athletic eta Bilbao futbol taldeen arteko batasuna 1902ra- ko sortu zuten *Bizkaya* izenez, *Euskeria* orfeoia, euskaraz eta lati- nez kantatzeko eta abar. Espainiako Gobernuak edozein aitzaki era- biltzen zuen ekimenak, *El Correo*

### EGILEA

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA



UPV-EHUko katedraduna. 'Aska- tasun eguzkia: Sabin Arana, (1865-1903)' erakusketaren ardu- raduna

vasco egunkaria eta beste, debeka- tzeke. Sabino Arana espelxean berriz sartu zuten telegrama bat Estatu Batuetako presidenteari bidaltzeagatik. Bizkaiaaren indepen- dentzia lortzeko bideak jorratzen ari zen eta nazioarteko babesia lortu nahian. Espelxean zegoela beste alderdi berri bat asmatzen saiatu zen. Alderdi abertzale delakoa, isil- peko egitasmoa zen. Baino Liga de Vascos, hasieratik espainolista iza- nik, agerikoa bihurtu nahi zuen, Espaniar legearen baitan. Azkenik bere inguruko batzuk ez zioten jar- monik egin. A. Zabala jarri zuen alderdiko buru, alderdi berriaren aukakoa, legegizon, historian adi- tua eta euskalduna. M. Cortes ondoan zuela, ekin zion alderdi abertzalearen antolaketari. Sabino Arana N. Atxikallanderek ezkon- du zen Abinan (1900). Baserritarra eta sozialki behe mailakoa. Bere ingurukoek ezkontzaren aurka zeuden baina bere ezkontza sozialki esanguratsua bihurtu nahi izan zuen, doktrina demokratikoak alde zegoela erakusteko (hala adierazi zion E. Aranzadiri). 1903an jadanik, pertsonai politiko ezaguna zen eta bere heriotza egunkari guztietan agiri zen. Erakusketaren azken atala, gomutaria da. Bertan Arana-Goiri gudaldearen ibilbidea ere azaltzen da.

Erakuseta Ondare aretoan ikus daiteke (María Diaz de Haro, II. Bil- bo). ●

## EGIN BAT SABINO ARANA FUNDazioAREN LAGUNEKIN

CLICK:[www.sabinoarana.org](http://www.sabinoarana.org)

ÚNETE A LOS/AS AMIGOS/AS



VICTOR,AITOR,PANTXO,JOSEBA,IÑIGO,GIOVANNI,JONE,ALBERTO,AMALIA,RICARDO,MIKELE,ÁNGELA,FÉLIX,ISABEL,GORKA,ANA,URKO,MALEN,MATILDE,BEGONA,ESTEBAN,IBON,EIDER,ALMUDENA,ZIORTZA,JOSU,IRANTZU,GARBINE,MIREN,LUZ,IGOR,LUIS,DAVE,ELVIRA,IAN,ALEX,JAUREGI,TELMO,XIXILI,PEPE,SUSANA,ORKATZ,RITA,OR,VALENTÍN,EGUZKINE,BAKARNE,EGIN ZAITEZ BAZKIDE! T: 94 405 64 50, HAZTE SOCIO/A!, ARANTZA,CECILIA,IDURRE,JONE,DORO,BORJA,JAIME,OSCAR,ALICIA,VIOLETA,MALENA,RAQUELA,AURORA,PERU,SONIA,NORA,GONZALO,ALBERTO,QUIQUE,LUIS,MARTINE,ANDREA,IMANOL,LUKA,MAR,LEIRE,JULEN,ESTIBALIZ